



ALEA

arabako aldizkaria

OSASUN KRISIA **IZOZTU DA ARABA**





**Vitoria-
Gasteiz**
geratu
etxean

**Arduraz jokatu
eta ez atera
ezinbestekoa
ez bada**



ALEA 231

2020-03-20 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

ESTI LANAO

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Koronabirusak gelditu du Araba.
- 8 **Sakonean.** Ane Ibañez: "ZIU beteta dago larri dauden gaixoeekin".
- 10 **Analisia.** Unai Villalba, 'Zer eragin izango du ekonomian?'.
- 12 **Sakonean.** Josune Velez de Mendizabal: "Sortzen jarraitzen dugu, oholza gainera bueltatzeko zain".
- 14 **Sakonean.** A.Irazabal: "Txinak erakutsi du isolamenduak funtzionatzen duela".
- 18 **Iritzia.** Aintzane Urrutia, 'Txikitasunean'.
- 19 **Iruditan.** Espainiako Armada, Gasteizen.
- 20 **Gizartea.** Ostiral Berdeak martxan jarri dituzte Dulantziko eskolan.
- 24 **Kirola.** Badaiotz sokatira taldeak munduko txapela eraman du.
- 28 **Nutrizioa.** Nagore Enciso, 'Orain, apokalipsia'
- 29 **Musika.** Igor Muñoz, 'Musika-dokumentalak'.
- 30 **Denbora-pasak.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Mikel Buruaga

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Antonio de Sucre 1, behe

01003 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Nagore Enciso, Unai Villalba, Igor Muñoz, Aintzane Urrutia.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Geldi, birusaren erasoari aurre egin nahian


Bost eguneko epean Eusko Jaurlaritzak agindutako ikastetxeen itxieratik alarma egoerara igaro da Araba, eta etxean konfinatuta daude milaka lagun. Testuinguru horretan, zaintza sareak antolatu dituzte hainbat herritan zailtasunak dituztenak laguntzeko; eta osasunaren alde, planto egin dute Mercedesen.

Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute**

Konfinamendua. Duela hilabete bat amestu ere ezin zuten agertokian daude gaur arabarrak. Eusko Jaurlaritzak martxoaren 9an Odon de Apraiz eta Bastidako ikastetxeetan klaseak etetea erabaki zuenetik martxoaren 14an Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri zuen arte, arrapaladan datoz gertaerak. Herrialdeko jarduera soziala, kulturala, ekonomikoa, administratiboa eta politikoa geldiarazi ditu koronabirusak. Izoztu da Araba osoa, gaitzaren erasoari aurre egin ahal izateko.

Koronabirusaren krisi honetan herritarrek aurea hartu dute, eta beren osasuna eta ingurukoena lehenetsi dute beste ezeren gainetik. Horren erakusle nagusia Mercedes enpresaren itxiera izan da. Langileen plantoaren ostean, EAEko enpresa handienaren zuzendaritzak ekoizpena gelditzea erabaki du. Alta, bost mila langile horien aurretik, eta alarma egoerari itxoin gabe, ateak ixtea erabaki zuten, besteak beste, Aiztogile kaleko tabernariak; eta langile autonomo askok euren kabuz hartu zuten jarduera eteteko erabakia, administrazioen neurriei itxaron gabe. Asteazehar, gutxika, alor ezberdinetako beste enpresa txikiek ere ateak itxi dituzte eta administrazioaren aurrez aurreko arreta ere eten da.

Bestalde, zaintzaren alorreko hutsuneak agerian utzi ditu krisiak, eta maila horretan ere herritarrek dira behar bereziak dituzten lagunak babesteko neurriak hartu dituztenak, tartean adinekoak eta ezinduak. Gasteizen, 1.500 pertsona inguru parte hartzen ari dira Batera izeneko zaintza sare herritarrean, eta Zuian eta Agurainen ere martxan jarri dira bereziki adineko jendea laguntzeko taldeak. Beste hainbat udalerritan eta herri txikiagoetan bizilagunen artean antolatzen ari dira, oinarritzko erosketak egin ahal izateko eta elkar zaintzeko. ■



Koronabirus kasuak Araban

Otsailaren 28an Arabako lehen kasua ezagutarazi zenetik, datuek goranzko joera nabaria izan dute. Hasierako egunetan informazio falta eta ziurgabetasuna nagusitu ziren; azken astean aldiz informazioa egunero jakinarazi da, nahiz eta egiten den test kopurua ere kasu larrietara bakarrik mugatu den.

Iturria: Osakidetza



Kutsatzeko arriskua Gasteizen

Iturria: Gasteiz


Mar.10	Mar.11	Mar.12	Mar.13	Mar.14	Mar.15	Mar.16	Mar.17	Mar.18
0,118	0,128	0,138	0,148	0,157	0,218	0,302	0,419	0,580

Ereduak udalerri bakoitzaren arrisku-tasa zenbatetsi nahi du, honakoak kontuan hartuta: (i) SARS-CoV-2 transmisio-dinamika, (ii) mugikortasun-patroiak eta (iii) biztanleriaren demografia.

Ospitaleetako gainkarga aurreikuspena

Ospitaleek pairatu dezaketen gainkarga aurreikusten saiatu dira Tarragonako eta Zaragozako Unibertsitateetako ikertzaileak, Koronabirus gaitzaren kutsatzeko arriskua aintzat hartuz. Araban bizi daitekeen egoera adierazgarria da, kutsatutako biztanle kopurua proportzionalki oso altua baita lurraldean.

Iturria: Mapa de riesgo de propagación de COVID-19 por contagio comunitario. Proiektuaren koordinatzaileak: Alex Arenas (Universitat Rovira i Virgili, Tarragona) eta Jesus Gomez (Universidad de Zaragoza, Zaragoza).



Europa mailakoak

Azken eguneraketa 2020/03/17

Kutsatutakoak

63.268

Hildakoak

2.755

Mundu mailakoak

Azken eguneraketa 2020/03/17

Kutsatutakoak

183.319

Hildakoak

7.177

Osatutakoak

79.908

Iturria: World Health Organization



GOOGLE MAPS

San Martín adinekoen egoitza, kaltetuen

Koronabirusaren eraginez, Araban hil diren lagunetatik zortzi Sanitas-San Martín adinekoen egoitzan bizi ziren; gainera, bertako beste 43 adineko ere kutsatuta daude eta 25 langile isolamenduan dituzte. Martxoaren 8tik darama egoitzak itxita, berrogeialdian. Egun horretan, Sanitasek azaldu zuen 22 adinekori eta lau langileri koronabirusa atzeman zietela. Ordutik, kutsatutakoen zenbatekoak gora egin du nabarmen. Egoitzan jazotako lehen positiboa Txagorritxuko ospitalean ingesatuta egondako gizon bat izan zen, eta otsailaren 29an ordu batzuetarako itzuli zen egoitzara, okerrera egin zuen arte. Gasteizko koronabirusaren "zero paziente" bertako doktore bat izan zen.



BATERA

Elkartasun sareak, lurralde osoan

Herriz herri antolatu dira herritarrak, bereziki behar handiena duten herritarrei etxeko errekaduekin edota zaintza lanekin laguntzeko. Koronabirusak sortutako egoeraren aurrean, zaintza komunitarioa antolatu dute, besteak beste, Agurainen, Gasteizen, Zuian eta Aramaion; Kuartangon, Zanbranan eta Erriberabeitian, berriz, udalek antolatu dute elikagaiak eta botikak banatzeko modua. Halaber, Arabako Errioxako Kuadrilla beharrezko produktuen etxeko etxeko hornidura-zerbitzua eskaintzen ari da berrogeialdian daudenei. Arabako Diputazioak ere koronabirusari aurre egiteko neurriak eguneratu eta Etxean Zurekin programa abiatu du, mendekotasuna duten pertsonen etxeko laguntza emateko.



PHOT. OK

Pilaketatik lasaitasunera

Dendetan giro lasaia goa atzeman dute langileek azken egunotan; iragan asteko pilaketaren ostean, zentzuz jokatzeko ari dira orain Gasteizko herritarrak. Sergio Monge Ortegak Salburuko BMko kuxetan lan egiten du. "Orain jendea askoz lasaia dago, erosketa arruntagoak egiten ditu, ez aurreko egunetako astakeriak. Jendeak beldurra zuen, ikusi zuen telebistan supermerkatuak hutsik zeudela eta histeria kolektibo kutsakorra zabaldu zen", azaldu du. Beraz, lehen egunetako pilaketari aurre egiteko ordu gehiago lan egin behar izan dute langileek: "Ordu gehiago geratu behar izan gara supermerkatua hornitzeko". Egun hauetan ere babes neurriak zorroztu dituzte supermerkatuetan.



WIKIMEDIA/BASOTXERRI

Zergak ordaintzeko epeak luzatu dituzte

Gasteizko Udalak hainbat zerga ordaintzeko epea luzatzea erabaki du, eta irailaren 15era arte ordaindu ahal izango dira Ondasun Higiezinaren zerga, Ibilgailuen zerga eta Zaborraren tasa. Hiru zerga hauek maiatza eta ekaina artean ordaindu behar ziren. Gorka Urtaran alkateak adierazi duenez, "koronabirusaren osasun krisiak ekarriko dituen balizko kalte ekonomikoak aurreikusiz, Udalak erabaki du epeak luzatzea". Jarduera Ekonomikoen zergari dagokionez, azaroan amaituko da ordaintzeko epea. Bestalde, TAO zerbitzua bertan behera uztea erabaki du Udalak, eta halaber tren geltokiaren eta Aldabe gizarte etxearen aparkalekuak ordaindu gabe erabili ahalko dira.



IREKIA

Osasun zentroetara deitu behar da orain

Arabak, arnas arazoekin lotutako sintomak dituen herritar orok beren osasun zentrorara deitu beharko du zuzenean. Orain arte, Osakidetza horretarako prestatutako telefonora deitzea zen gomendioa. Sailburuak argitu duenez, Arabako osasun zentroen sarean, hiru zentro prestatu dira arnasketa-arazoei lotutako sintomak izan ditzaketen kasuak isolatzeko, eta prebentzio-neurri bereziekin artatzeko. 900 20 30 50 telefonoa erabat kolapsatuta dago. Askok dira kontaktuan jartzea lortzen ez duten sintomak dituzten pertsonak, eta, beraz, ezin dute ez diagnostikorik ez gomendiorik jaso. Hortaz, osasun zentrorara deitzea eskatu dute, norbaitek sintomarik badu artatua izateko.



ARABAKO ERRIOXA

Komikiak eta ipuinak sortzeko deia

Arabako Errioxako Kuadrillak, berrogeialdia eramangarriagoa izan dadin, gazteentzat komiki lehiaketa bat eta helduentzat kontaketa laburreko beste bat antolatu ditu. Komiki-lehiaketa, 13 urtetik beherako gazteentzat da. Gutxienez 30 bineta bete beharko dira, eta horietan berrogeialdiaren eszenak jaso behar dituzte. Isterioiko protagonista egilea bera izan behar da, euskaraz edo gaztelaniaz egin daiteke, eta eskuz edo ordenagailuz. Helduentzako kontaketa laburretan ere berrogeialdiaren ingurukoak jaso behar dira, eta mila hitz baino gutxiago idatzi. Martxoaren 31n amaitzen da lanak entregatzeko epea; eta claguardia.aitor@ayto.araba.eus posta elektronikora bidali beharko dira.

"Familiak ordu erdiz bakarrik bisitatu dezake gaixoa, atetik"

ANE IBAÑEZ MONTON ERIZAINA

Momentu gogorra bizi izaten ari da asteotan Txagorritxu ospitaleko erizain Ane Ibañez Monton. Estres maila handiarekin lan egitearekin batera, koronabirusagatik larri dauden gaixoen familien egoera gertutik bizi du. Kritikoa da erakundeen jokabidearekin; hartutako neurriak berandu datozela uste du gasteiztarrek.

Testua: **Mirian Biteri**. Argazkia: **Ane Ibañez Monton**.

Gasteizko Txagorritxu ospitalean egiten du lan Ane Ibañez Monton erizainak, Zainketa Intentsiboetako Unitatean (ZIU). Koronabirusa iritsi aurretik, larrialdietan zegoen lanean, baina birusak eragindako baldintzak behartuta, lekuz aldatu dute. Azken

asteotan bizi izandakoa eta gaur egungo egoeraren berri eman du datozen lerroetan.

Nola dago Txagorritxu?

ZIU dagoeneko beteta dago larri dauden gaixoeekin, eta hortaz, ebakuntza-geletako solairua egokitu behar izan dugu, ZIU moduko unitate bat sortzeko, gaixo guztiak artatu ahal izateko. Bertan dauden arnagailu guztiak behar ditugu.

Zaintza Intentsiboetako Unitateaz gain, bestelako solairuetan ere izango dira koronabisua duten gaixoak, ala?

Noski. Ospitalean zehar badaude solairu asko barkatuta dauden gaixoeekin; oraingoan, zaintza kritikorik behar ez dutenekin. Bestalde, paziente ahulenak, hala nola, onkologian, ginekologian eta amatasun atalean daudenak, bigarren solairuan daude; koronabirusa dutenetatik ahalik eta urrunen dituzte, babesteko asmoz.

Okerrena oraindik ez dela heldu diote.

Egia da. Nire ikuspegia ez da oso itxaropentsua, ZIUa beteta egonda, pazienteak egoera kritikoan jartzen direnean agian ez dugu izango ez bitartekorik ez eta lekurik horiek artatzeko, eta orduan inprobisatu beharko dugu, beste solairu batzuetan ZIU moduko gelak egiten. Bestetik, espezialitate horretako langileak garenak gara, eta egunotan operazio-geletako lankideei formakuntza azkarra ematen ari gara. Zaintza lanak oinarrizkoak bihurtzen ari dira, gaixoak txanda batetik bestera bizirik mantentzeko. Dena dela, alde positibo bat ere badu guzti honek: alegia, jendea prestutasuna ari dela erakusten eta langileak %200ean ari direla lan egiten; larrialdietakoak, %300ean. Kontuan izan behar da hasieran kasu bakarra heltzen zela egunean, eta egunotan gau bakar batean 70 lagunetik gora ospitaleratzen dituztela birusarekin. Izugarria da. **Osasun arloko profesionalentzat oso gogorra izango da horrela lan egitea...**

Bai, azkenean estres maila handiarekin bizi gara. Eta gezurra ematen du baina norbera babesteko ekipamenduarekin lan egiteak ere bere zailtasunak ditu; kontuan izan behar da zazpi



Ane Ibañez Monton, lanean.

ordu eman behar ditugula horrekin eta zailtasun handiak ematen dituela.

Horri gehituko zaio hainbat lankidek ere koronabirusarekin kutsatuta daudela...

Hala da. Hau guztia hasi zenean, ez genuen sinisten Txagorritxu bezalako ospitale txiki batera helduko zenik. Bat-batean heldu zen, ospitale barrura sartuz. Orduan ez genuen sinisten horrelakorik gertatzen ari zenik, protokoloak egunero aldatzen ziren. Hasieran esaten ziguten maskarak ez genituela erabili behar, katarro bat baino ez zela. Baina, gero ikusi dugu gure burua eta gure familia arriskuan jarri ditugula pazienteak artatzerakoan. Orain norberak du bere ekipamendua, baina lehen ez, eta badago jendea kutsatu egin dena; eta batzuk sintoma larriak dituzte. Zenbaitetan froga beranduegi egin da, gainera. Babesik gabe sentitu gara askotan.

Zuri, esaterako, proba egin dizute?

Ez. Probak egiteko arrisku kontaktua eduki behar izan duzu: hau da, 15 minututik gora metro bat baino gutxiagora egotea positibo izandako batekin; kotxea partekatzea koronabirusa duenarekin edo paziente bat artatzea maskara gabe. Kasu horietan, sintomak izan dituztenei

proba egin zaie eta bakartu egin dituzte. Bestela, arrisku txikiko kontaktuak izan ditugunoi, ez.

Nola zabilzate lan egiten?

Txanda normalak egiten: sei egunez egiten dugu lan, txanda bakoitzean bi egun; eta gero hiruzpalau egun ditugu jai. Jardun murriztua dutenei, bestalde, osora egoteko aukera eman zaie. Horrekin lotuta, aipatzekoa da errefortzu asko ekarri dituztela ZIUr; bereziki, osasun zentroetan lanean zeudenak eta zaintzetan espezialistak direnak; eta, aipatu bezala, larrialdietako ebakuntza-gelak baino ez daude funtzionamenduan, eta hortaz, gainerakoetako lankide gehienak ere errefortzu gisa etorri dira. Bestalde, lankide batzuk egokitutako ZIU berrira bidali dituzte, eta ingurunea berria izateaz gain, baliabide gutxiago daude. Ahal dena egiten dugu.

Nolako aurreikuspenekin egiten duzue lan?

Aurreikuspena ez da oso ona. Egunero esaten digute momentu kritikoa ez dela oraindik heldu. Saturaziora ez gara iritsi oraindik, batzuetan heldu garela uste badut ere; eta etxean geratzen bagara, ez iristeko itxaropena dut. Dena dela, bagabiltza unitate berriak egokitzen, eta horrez gain, egoerari aurre egiteko osasun pribatutik beraien errekurtoak eman behar digutenez, hor ere ate berri bat zabaltzen da. Baina honek aurrera jarraitzen badu, azkenean pazienteen artean hautaketa egin beharko dugu. Horrek tristura izugarria ematen du. Bestetik, aipatu nahiko nuke gaixoen familientzat oso zaila ari dela izaten: bisitatu ahal izateko datuak eman eta baimena jaso behar izateaz gain, atetik ordu erdiz bakarrik ikusi dezakete; ezin dute ukitu, besarkatu... Oso momentu gogorrek dira guztiontzako, baita guretzako ere.

Herritarrok kontziente izan gara egoeraren larritasunaz?

Ez dut uste. Nik neuk ospitalean errealtate bat bizi nuen bitartean, kalean jendea normaltasun osoz ibili izan da orain gutxira arte. Hasieratik ez digute ondo kontatu, eta nire ustez berandu heldu dira neurriak. Baina, aurrerantzean ondo egiten badugu, kurba horri buelta emateko gai izango garela pentsatu nahi dut.

Amaitu aurretik, zer diozu osasun arloko profesionalen lana txalotzeko egindako ekimenaz?

Lehenengo egunean, etxean nengoela, hunkitu egin nintzen; oso keinu polita iruditu zitzaidan. Eskertzen da, baina publikoaren alde borrokatzen dugunean ere gustura entzungo genituzke txaloak. ■■■

Zer eragin izango du ekonomian?



UNAI VILLALBA

EHU-KO EKONOMIA IRAKASLEA

Erantzuna sinplea da: ez dakigu. 2007ko krisi ekonomiko haundiak eztanda egin aurretik, ekonomiariek ez zuten zetorrena asmatu. Oraingoan epidemiologoez ez dakite zehaztasunez zenbat iraungo duen osasun larrialdi egoerak. Beraz ekonomiariek ezin dituzte asmatu ekonomian izango diren eraginak, egoera egunetik egunera aldatzen doa eta. Baina eragina larria izan daiteke, eta sektoreka intzidentzia aldaera desberdinak izan ditzake.

Badaude datu mota desberdinak, adibidez: (I) Nazioartean, petroleoaren prezioa ikaragarri jeitsi da (%40 inguru azken bi hilabeteetan), ekoizpena eta kontsumoa motelduko diren seinale. (II) Europan, BPG-aren esperotako hazkuntza eskasa zen jada, eta orain %1 murriztuko dela iragarri da 2020rako COVID19-a dela eta; hori bai, 2021rako egoera hobetuko omen dela diote. (III) Espainian, IBEX-35 indizeak %20a galdu zuen joan den astean; eta gaur (astelehena) berriro ia %8 galdu du. Gehien galdutakoak burtsan IAG (British Airways eta Iberia) dira, ia %40 inguru, porroterako beldurra piztuz. (IV) Araban,



Espainian milioi bat lagun langabezira joan daitezkeela diote batzuek. ERLANTZ ANDA

SEA enpresarien erakundeak enpresen %25ak jada fakturazioaren %25eko murrizketa somatu duela adierazi zuen, joan den astean... aste honetatik aurrera auskalo! (V) Gaurtik aurrera ehunka Aldi Baterako Lan Erregulazio Espediente (ABLEE) hasiko dira gurean, eta milaka langile lanera joan barik egongo dira, beraien egoera aldakorra izan daitekeelarik kontratu mota eta ABLEEaren negoziozioaren arabera. Espainian milioi bat pertsona

langabezira joan daitezkeela diote batzuek.

Egoera latza dator; datu garbirik apirilerarte ez dugu izango ordea. Orduan martxoko hilabetearen eta urteko lehen hiruhilabetearen datu

2007KO KRISIAN MURRIZKETAK IZAN ZIREN SEKTORE PUBLIKOAN, ETA GAUR BERAIEK FALTA DUGU

makroekonomikoak plazaratuko dira; bi aste hauetan gertatutako ABLEEk ezagutuko ditugu; eta bi asteko etxeko konfinamenduak COVID19-aren aurrean eman duen emaitza ikusiko da. Baina neurri ekonomikoak gaurdanik hartu behar dira, zeintzuk?

Antza, askotarikoak: (I) Moneta politika hedakorrak (diru gehiago inprimatu eta interes tasak jeitsi). Banku Zentralak horretan ari dira, baina emaitza gutxi oraingoz, burtsak kasino edo jolasleku arduragabe eta zoroa direlako aspaldi, eta merkatuen beldurra eta diru-gosea birusa bera baino kutsakorragoak direlako. (II) Politika fiskalak, enpresa eta autonomei zergak beranduago kobratu, enpresentzat maileguak erraztu, gobernuek diru gehiago inbertitu ekonomia pizteko, etabar luze bat. (III) Familientzat laguntza neurriak hartu, dirulaguntza zuzenak, etabar. Baina, zeinek pagatuko du guzti horren faktura? Zeinek hartzen du finean egoeraren ardura?

Estatuak oraindik zorpetuta daude aurreko krisitik, eta gainera, estatuen dirua gu guztion poltsikoetatik ateratzen da (nagusiki familietatik eta ez aberats edo enpresetatik). 2007ko krisian, ahulenek gehien sufritu zuten, eta zerbitzu publikoen murrizketa inposatu ziguten, besteak beste. Oraingo krisian zerbitzu publiko sendoak izatearen beharra agerian geratu da. Enpresek dirulaguntzak eskatzen dituzte, bale, ados. Baina zertarako eta zein bermerekin? Jabeen etekina sostengatu edo lanpostuak eta langileen ongizatea mantentzeko? Badakizueenez, Gasteizko

enpresa haundienak gaur ez du borondatez itxi, langileek itxi behar izan dute. Eta antzeko zenbat egoera ez ote dira gertatzen ari beste enpresa mordo batetan? Dirua sartzen bazaie, enpresa eta sektore estrategiko batzuen nazionalizazio progresiboa eskatzera ausartuko gara, adibidez?

Are gehiago, ekonomia BPG-a eta lanpostuetatik haratago doala aldarrikatzen dugunontzat, ekonomia ekologikoak eta ekonomia feministak egindako ekarpen sendoen ildotik, badira bestelako gogoetak. Ekonomia ekologikoak gure ekoizpen eta kontsumo maila murrizten dugun bakoitzean zera adierazten digu: ingurumena hobetzen dela, adibidez hirien airearen kalitatean, edo baliabiden naturalen agortzea leunduz. Ekonomia feministak zera adierazten digu: ekonomia kapitalistak zaintza lanen garrantziari muzin egiten diola eta zaintzak mantentzearen esfortzu edo kostuak

kanporatzen saiatzen dela, nagusiki familien esku edo bestela sektore publikoaren gain utzita. Horri esker egiten ditu mozkinak. Zaintza eta osasunean (eta beste arlo askotan) zerbitzu publiko indartsuagoak behar ditugu (zerbitzu pribatu eta kontzertatuek gero ez dute borondatez ardura hartzen).

2007ko krisiaz ez omen genuen nahikoa ikasi. Orduko erantzunetako bat sektore publikoan murrizketak izan ziren, eta gaur beraien faltan gaude. Oraingoan estatuak gastu gehiagori aurre egin beharko die, eta horretarako zorpetuko da, eta oster berriro noizbait murrizketetara bueltatu behar garela esango digute? Espero ezetz, espero ordurako behar duguna eredu ekonomikoaren aldaketa bat dela ikasita izatea. Eta hori gaur gaurkoz ditugun agintariekin ez digute emango, zer egingo dugu herritarrok beraz?

Krisiak aukerak ere badirela diote. Eredua aldatzeko prest gaude? ■■■



Planto egin dute Tubos Reunidoseko langileek. AIARALDEA ATARIA

"Sortzen jarraitzen dugu, oholtza gainera bueltatzeko zain"

JOSUNE VELEZ DE MENDIZABAL AKTOREA

'Kittorik ez' ikuskizuna du esku artean Josune Velez de Mendizabalek, maiatzean taularatzeko gogoz. Egun hauetan, ordea, desberdinak dira entseguak; beste milaka sortzaileran antzera, irudimenari bide eman eta skype bidez prestatzen ari da Jason Guerra eta Ane Gebararekin aurkeztu beharreko talde lana.

Testua: **Anakoz Amenabar.**

Oholtza gainean harrapatu ditu *Harri, orri, ar* antzezlaneko aktoreak koronabirusaren zurrunbiloak, tartean Josune Velez de Mendizabal (Gasteiz, 1977) aktorea ere. Beste milaka sortzaile eta kulturgileren antzera, bertan behera utzi beharko dituzte hurrengo asteetarako saio eta proiektuak. Kezkaz bizi dute, erakundeetatik neurri sendorik hartu ezean, sektoreari kolpe latza aurreikusten baitiote. Itxialdiak iraun bitartean, baina, ez dira geldi sortzaileak; etxean lana prestatu eta handik hedatzeko egitasmoak ugaritu dira bazterretan. **Joan den ostegunean izan zenuten azkeneko saioa 'Harri, orri, ar' antzezlanarekin, ezta?**

Bai, Dferian izan zen, Donostiako arte eszenikoen azokan, Principal antzokian. Oso saio inportantea izan zen, han Euskal Herriko eta Espainiako antzerki eta dantza programatzaileak biltzen direlako. Erakusleio garrantzitsua da edozein antzezlanentzat; programatzaileek lana ikusi eta horren arabera erabakitzen dute obra gustuko duten, interesatzen zaien, kontratatu nahi duten... sektorean harremanak bultzatu eta bitartekaritza lana egiteko topaleku aproposa da. Baina gurea ez zen ondo atera, besteak beste, koronabirusaren itzala bertan genuelako eta horren aurretik hainbatek alde egin zutelako jaialditik. Gure ikuskizuna –*El patio de mi casa/ Harri, orri, ar*– otsailean estreinatu genuen Gasteizko Principalean, ondoren Arriagan eta Durangon

izan gara, eta Donostian ziren hurrengo emanaldiak. Honetan ilusio handia jarri eta lan handia egin dugun arren, koronabirusak eten dizkigu horiek. Orain zalantza dago berriro programatuko dizkiguten edo ez.

Zure kasuan, beste lan batzuk ere bertan behera geratu zaizkizu?

Pez Limbo taldearen zabalpen eta komunikazio lanak egiteaz gainera, aktore ere banaiz bi ikuskizunetan. Ekitaldi desberdinen aurkezpenak egiteko ere deitu ohi didate, eta nire bakarkako ikuskizunak ere egiten ditut Nisune eta Tranpola konpainia propioekin. Martxoko ekitaldi guztiak bertan behera geratu dira, eta apirilekoak seguruenik ere; hilabete honetan zortzi saio izango dira galduko ditugunak, eta baita institutuetan egiten ditugun bitartekaritza proposamenak ere. Ikuskizun hauetan guztietan hamalau bat lagun ari gara, baina hau kate bat denez beste hainbat laguni ere eragingo die zeharka bada ere. Orain gure lan egoera kolokan dago; guk emanaldi bakoitzeko kobratzen dugu, eta emanaldia egiten ez bada ez da kobratzen... Eta gure antzera inguruko sektoreko lankideak ere, noski. Arnasa hartzen ari gara etor daitekeenerako.

Egun asko luzatzen bada, nolako aurreikuspena egiten duzue?

Pez Limboren kasuan Aldi Baterako Lan Erregulazio Espedientearen baloratzen ari gara; kultura arduradunek iragarriko dituzten neurrien



Josune Velez de Mendizabal aktorea. JON DIEZ SUPAT.

zain, aukera bat izan daiteke inor kaltetua atera ez dadin. Zer salduko dut, programatzen ez bada? Ez dakigu noiz arte iraun dezakeen honek. Eta aktore moduan beste hainbeste, boloak bertan behera geratu dira "normaltasuna" berreskuratu arte, eta orduan ikusi beharko dugu... Zaila ikusten dugu sektoretik datak berrantolatzea; izan ere, antzoki eta elkarteek euren egutegiak dituzte eta denboraz programatzen dute. Egoera normal batean, batzuei deitu eta ordurako osatuta dute udazkenera arteko agenda, beraz... Orain berriz antolatzea bidean geratu diren ikuskizunak, noizko? Udazkenarako? 2021erako? Antzoki bakoitzaren kontratuari erreparatu beharko zaio.

Bada sortzaile eta kulturagileak babestuko dituen neurririk?

Horretan ari gara, goiz da ziurtatzeko. Ezohiko egoera den heinean, bideak bilatzeko lanetan gabilta. Bilerak, eskaerak... besteak beste, Artekale martxan jarri da bestelako elkarteekin –ADDE, Eskena, EAB eta Besteok– galeren datuak eta ondorioak jasotzeko.

Bien bitartean, etxean jarraitzen duzue lanean, ezta?

Maiatzaren 19an *Kittorik ez!* ikuskizuna estreinatzeke dugu, eta aste honetan bertan Garaionen beharko genuke Jason Guerrak, Ane Gebarak eta hirurok hori prestatzen, erresidentzian. Gure egutegietan oso garrantzitsua zen astebeteko egonaldi hau entseguetarako. Inprobisazio ariketen bidez lan egiten dugu, eta orain egoerak etxean eserita eta mahai gainean lan egitera behartu gaitu. Horrek eragina izango du produktuan. Guk erabiltzen dugun metodoa ez da gidoia idatzi eta egitea, baizik eta gorputzetik sortzea, alegia ariketa fisikoetatik, organikoetatik hasi eta ondoren testua gehitzea. Egoera honek asko zailtzen du prozesua, baina ahalegina egiten ari gara skype bidez ere lanak mantentzen; goizero elkartzen gara, pantailaren bitartez bada ere, lanari bultzada bat emateko.

Hainbat musikari sareen bitartez kontzertuak eskaintzen ari dira. Beste egitasmo batzuk sortzeko parada izan daiteke?

Bai, txalotzen dut egun hauetan aktoreek, dantzariak, abeslariak eta oro har kultura munduak izan duen erantzun sortzailea. Berrasmatzen ari gara. Sortzen jarraitzen dugu, oholtza gainera bueltatzeko zain, ea noizbait benetako publikoarekin (ez birtualarekin) berriro egiteko aukera dugun. Berandu baino lehen izan dadila. ■■■

"Txinak erakutsi du isolamenduak funtzionatzen duela"

ANE IRAZABAL KAZETARIA

Italian koronabirusaren gaitza Euskal Herrian baino lehenago hedatu zen eta Gobernuaren salbuespen neurriak ez ziren berehalakoan ezarri. Ondorioz, gaitzak bat-bateko hedapena izan du eta egun egoera larria bizi dute; horren berri Ane Irazabal kazetariak eman dio Anboto astekariko Jone Guenetxea lankideari. Testua: **Jone Guenetxea** Argazkiak: **Goiena**.

Ane Irazabal Elkorobarrutia kazetaria (Arrasate, 1984) Erromatik ari da kontatzen koronabirusaren krisia. Kazetariak azaldu du Italia koronabirusaren unerik gogorrena bizitzen ari dela. **Momentu honetan zein egoeratan zaudete Italian?** Herrialde guztia isolatuta dago. Ezin gara atera bizi garen herritik. Hiru baldintzapean bakarrik atera daiteke etxetik: lan arrazoiengatik, janaria erosteko eta osasun larrialdi batengatik. Kasu guztietan ziurtagiri bat behar da, Poliziak galdetu ahal dizulako zergatik zauden kalean. Barne Ministerioak argitaratu du posible dela kalera paseatzera irtetea, baina pertsona bat familiako. Ezin da irten ez taldeka ezta bikoteka ere. Herrialdea koronabirusaren unerik gogorrena bizitzen ari da. Ez gara iritsi kurbaren erpinera, eta hildakoen eta kutsatuen kopurua gorantz doa modu esponentzialan.

Kazetari legez, izan duzu arazorik kalera irten eta lan egiteko?

Italiako Barne Ministerioak kazetari guztioi bidali digun dokumentu bat daukat. Autoziurtagiri bat da, eta horrekin lan egitera irten naiteke. Ezin naiz nire hiritik irten, baina badut eskubidea hiriaren barruan lan egiteko.

Zelan baloratzen duzu Italian herritarrek eta arduradun politikoek izandako erreakzioa bai

krisiaren hasieran bai orain bizitzen ari zareten momentu kritiko honetan?

Hiru aste baino gehiago daramatzagu kontu honekin eta fase guztietatik pasatu gara. Lehenengo, desinformazioan oinarritutako alarmismo bat zabaldu zen eta horrek txinatarrekiko xenofobia zabaldu zuen. Gero, saiakera bat egon zen krisia txikitzeko, hein handi batean, ardura handia zegoelako krisiak edukiko zuen ondorio ekonomikoengatik. Hamaika udalerrri isolatu zituzten eta pentsatu zuten foku nagusi horiek isolatuta gai izango zirela krisiari aurre egiteko. Bizitza normala egiteko esan zuten, eta infekzioa gehiago zabaltzea ekarri zuen horrek. Baina, egunak pasatu ahala, denak kontzientziatu dira, eta, ondorioz, herrialde osoa gelditu da. Bestalde, Errepublikako presidentearen aldetik deialdi bat egon da alderdi politiko guztiek su-eten moduko bat sinatzeko. Eztabaida politikoa eguneroko kontua da Italian. Polemika alde batera uzteko deialdia egin dute eta igarri egiten da. Matteo Salvini lider ultraeskuindarra normalean egunero egoten da polemika kapitalizatzeko nahian eta egun hauetan inoiz baino isilago dago.

Zein fasetan zaudete orain?

Baikortasun fasean gaude. Arratsaldetan balkoietatik musika entzuten da. "Lortuko dugu"0 eta horrelakoak entzuten dira. Ikusiko

dugu zer gertatzen den hamabost egun baino gehiago egon beharko dugula esaten badigute.

Herriarrek kontzientzia hartzea prozesu bat izan da?

Kosta egin da, indibidualismoaren ondorioz alde batetik, baina baita jendea oso nahasita egon delako ere. Herrialde osoa isolatu arte, iparraldetik hegoaldera ihes egin duen jendea egon da. Horrela, kutsadura beste leku batzuetara eraman dute ez zutelako isolamenduan egon nahi. Hala ere, uste dut kontzientzia-hartze kolektibo bat egon dela, ez dagoelako beste erremediorik.

Italian gure aurretik zoazte. Euskal Herrira begiratuta, hemengo egoera zelan ikusten duzu?

Bederatzi egun atzetik zoazte, baina neurriak guk baino arinago hartu dituzue. Mugimenduak murriztea, taberna eta jatetxeak ixtea... Gainera, Euskal Herrian oso gauza kurioso eta polita gertatu da. Jende askok bere kabuz erabaki du ixtea, agintariak esan aurretik, arduratsuak direlako. Hori Italian ez da gertatu. Gobernuak esan arte ez dute erabaki hori hartu. Grafikoak ikusita, kurbak oso antzekoak dira, bai Italian baita hor ere. Txinak erakutsi du isolamenduak funtzionatzen duela eta bakoitzaren ardurarekin ikusiko da zer gertatzen den. Hor, hasieran, jende askok broman hartzen zuela nabaritu dut, baina jendeak gero eta hurbilago ikusi duenean kontzientzia hartu du. Nik gurasoen eboluzioan ikusi dut. Kontuz ibiltzeko esaten nien Italiatik, eta alarmista bat nintzela uste zuten. Baina egunak pasatu ahala, konturatu dira.

Beste herrialde batzuetan isolamenduarena zalantzan jartzen da. Erresuma Batuan, esate baterako.

Erresuma Batuen kutsadura kontrolatuaren estrategiak alarmak piztu ditu toki guztietan. Estrategia bat egon da Johnsonen aldetik ekonomia ez kaltetzeko. Ikusten da zein den bere lehentasuna, eta agian ez da adinekoen bizitzak salbatzea. Hori antropologo batek agian hobeto aztertu dezake, kultura katoliko batean edo gizarte protestante batean bizitzeak zein eragin duen. Uste dut pisu katolikoa dugula guk, bizitza laikoa egin arren, eta horrek badu bere eragina: bizitzaren garrantzia... Darwinismo sozialean oinarritu da Johnson. Indartsuenek bakarrik bizirik irauten dute.

Kazetaritzaren ikuspuntutik azterketa izaten ari da denontzat. Ari gara asmatzen gai honen inguruan informatzerakoan?

Testuinguru berri batean gaude, arlo guztietan. Medikuentzat, agintarientzat eta baita





lrazabalek greziako errefuxiatuen egoera bertatik bertara jarraitu du azken hilabeteotan; egun, Erromatik irten ezinda dago. @ANEIRAZABAL

kazetarienez ere. Egunero aldatzen ari den testuinguru batera egokitzen eta erantzun bat ematen ari gara. Hasieran Italian zegoen sentsazionalismoaren aldeko olatu hori desagertu egin da. Azken urteetan desagertuta egon den zerbitzu publikoa indarra hartzen ari da horrelako testuinguru batean.

Lesbosen bizi den egoeraren inguruko jarraipena egiten duzu. Han ere koronabirus kasuak agertzen hasi dira. Lehendik ere gogorra zen egoera.

Errefuxiatuek ez badituzte gutxieneko zerbitzu minimoak jasotzen, janaririk, edateko urik... ez dizkiete inolako koronabirus probarik egingo. Egia da birusak ez duela herriaren, arrazaren, kolorearen bereizketarik egiten. Birusari erantzuna emateko estrategia, berriz, arrazista izango da. Eta hori argi ikusiko dugu krisi hau errefuxiatuen kanpalekuetan kudeatzerako orduan, eta ez bakarrik Lesbosen. Beraz, nahiz eta birusa oso demokratikoa izan, emango den erantzuna ez da demokratikoa izango, eta hor ere nabarituriko dugu errefuxiatuenganako

bazterkeria. Azkenaren azkenak izango dira. Beti esan izan da Afrikatik gaixotasunak ekartzen dituztela, Turkiatik datozen asilo eskatzaileek ekartzen dituztela birusak... Ikusi dugu geuk eramaten ditugula haiengana.

Maila pertsonalean, zelan daramazu hau guztia?

Jende guztiaren moduan. Nik baimena daukat lan arrazoiengatik kalera irteteko, eta irten egiten naiz. Alde horretatik, aukera dut Erroma barruan mugitzeko. Bestalde, herritar guztien moduan, saiatzen naiz animatuta egoten eta ondokoak zaintzen, telefonoz bada ere. Gure inguruko bizilagun asko emakume alargunak dira. Saiatzen gara beraien erosketak egiten.

Italiatik harridurarekin ikusten ari zarete supermerkatuetan komuneko paperaren erosketa masiboa.

Hemen komuneko papera ez da amaitu. Gainera, hemen harrituta gaude, bidetea garbitzeko ohitura dagoelako. Hemen, lehenengo egunetan pasta agortu zen supermerkatuetan, etxean janaria prestatzeko errazena delako. ■



Izan
zaitez
ALEAkide



alea.eus/harpidetzak

Txikitasunetik



AINTZANE URRUTIA

INFORMATIKARIA

Ordenagailua piztu dut eta nabigatzailea ireki orduko agertu zara, telebista martxan jarri eta albistegi guztietan zaude, aisialdi programetako elkarrizketatu guztiek ezagutzen zaituzte, mugikorrean behin eta berriro jasotzen ditut zure inguruko mezuak... txikia, ttipia eta txikerra zara, begi bistaz ikusezina zara, baina zure txikitasunetik guztiongana iristeko ahalmena daukazu eta halaxe egingo duzula adierazi diozu munduari.

Txantxak tartean edo horrelakorik gabe, askotan entzun dugun esaldia da tamainak garrantzirik ez daukala, eta baieztapen hori egia dela argi geratu da oraingoan; hezkuntza, osasuna, ekonomia, aldaketa-klimatiko edota airearen kutsaduran ere eragina izan baituztu, zure nimiñotasunetik alor guztiei eragiteko ahalmena daukazula erakutsi diguzu.

Aurretik ere ezaguna zinen, Gasteiza iritsi aurretik ere bagenekien hor zinela, *business class*-ean bidaiatuko zenuela ere bagenekien baina... izurritea eteteak neurri eta kontrol zorrotzak eskatzen zituen eta politika neoliberaletan harrapaturik dagoen gobernu honek beranduegi hartu ditu beharrezko neurriak. Bada, krisi honek gure politikarien lehentasunak zeintzuk diren agerian utzi ditu eta aurrekontuetan osasunari eta ikerkuntzari aplikatzen zaion austeritatea zenbaterainokoa den ere nabarmendu du.

Koronabirus SRAS deritzona ez da berria; 2002-2004. urteetako agerraldiak, adibidez, 8098 kasu eta %9,5eko heriotz-tasa utzi zituen bidean. Zientzialariek birus mota honek zuen arriskuaz 2002. urtean ohartarazi zuten, horrela, birusa hobeto ezagutu eta modu berrietan agertzea ekiditeko helburuarekin, ikerketa-programa zehatzak proposatu zituzten. Tamalez baina, gobernuak uko egin zioten horiek finantzatzeari. Erabaki politiko horrek, gaur, guztiz zentzugabea dirudi, baina beharrezkoa den ikerketa hori industria farmazeutiko pribatuen esku uzteko egokia da aldi berean.

Horrenbestez, ozen esan dezakegu ez dela tamaina kontua, argi esan dezakegu lehentasun kontua dela beti. Beraz, identifika itzazu gure politikarien lehentasunak zeintzuk diren eta konturatu zure txikitasunetik aldaketa bultzatzeko aukera daukazula bozka ematen duzun bakoitzean. ■■■

**TELEBISTA JARRI ETA
ALBISTEGI GUZTIAN
ZAUDE, MUGIKORREAN
ETENGABE ZURE
INGURUKO MEZUAK...**

 IRUDITAN



Gasteizen zabaldu da Espainiako Armada

28 hiritan hedatu dira Espainiako Armadako 1.820 soldadu, "instalazioak desinfektatzeko eta pilaketak saihesteko", koronabirusaren pandemia geldiarazteko asmoz. Gasteiz hiri horietako bat da, eta lehen maniobrak Zabalgana auzoan egin zituzten asteartean.

Miguel Villarroya Defentsa Estatu Nagusiko buruzagiak jakinarazi duenez, Larrialdietako Unitate Militarreko, Lurreko Armadako eta Itsas Infanteriako militarrek Gasteizen hedatuko dira, beste hainbat hiritan bezala. Oraingoz ez dute zehaztu zein izango den hiriburuan armadak egin dezakeen lana, hainbat polizia-erakunde baitaude bertan. **Argazkia whatsapp bidez jasoa. ■■■■**



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**



Ingurumena txikitatik zaintzen

Ostiral Berdeak egitasmoa martxan dute Dulantziko eskolan; ikasleen artean ekintza ezberdinen bidez jasangarritasun irizpideak txertatzea du helburu. Hezkuntza komunitatetik harago doan proiektua da.

MIRIAN BITERI

Amalurra "egoera larrian" dagoela eta egoerari aurre egiteko egitasmo interesgarria antolatu dute ikasturte honetan Dulantziko ikastetxean. Ostiral Berdeak izena jarri diote proiektuari. Horren arduradun Gladys Martinezek horren garrantzia azpimarratu du: "Azken hamarkadetan kontsumoan oinarritutako sistema globalizatuak egoera jasangaitz batera eraman du planeta. Komunikabideetan

pil-pilean dagoen gaia da aldaketa klimatikoarena, Greta Thunberg gazteak lideratzen duena. Ikasleek hori guztia ikusten dute eta eskolatik, ikuspuntu eraikitzaile batetik, egoera aldatzeko gai direla zabaldu nahi dugu". Hala, ostiralero klima aldaketari aurre egiteko ekintza bat prestatzea erabaki dute.

Eskolako ikasketa-buruaren esanetan, Ostiral Berdeen proposamena "aukera bikaina" izan daiteke ikasleek, oinarritzko kompetentzia sozial eta zibikoak

zein elkarbizitzarako kompetentziak garatzearekin batera, natur zientzia arloak planteatzen dituen helburu batzuk jorratzeko. Proiektuaren bidez, ikasle nahiz irakasleek aukera izango dute "benetako arazo egoera batean" murgiltzeko, "benetako eragina" izan ditzaketen ekintzak aurrera eramateko, Dulantziko inguruneak eskaintzen dituen baliabide sozialak uztartuz.

Aurreikusitako ekintzak ostiralean egitekoak badira ere,



Otsailaren amaieran 100 zuhaitzetik gora landatu zituzten bost urteko ikasleek. M. BITERI

aurretik eta ondoren ere badaude hainbat atal talde bakoitzarekin jorratu beharrekoak. Ekimen bakoitza egin aurretik eskolako zuzendaritzako kideen bisita jasotzen dute gelakideek, ekimena azaltzeko. Jarraian, ikasleekin batera, jarduera aurrera eramateko ideiak jaso eta lan sekuentzia ezartzen da, eta ekintza gauzatzeko materialak sortu. Ekimena egin ostean, berriz, eskolako sarrera batean jarritako Eko-Gunea izeneko txokoa argitaratu beharreko dokumentazioa egingo dute, besteak beste.

Urtarrilatik ekainera

Aurreikusitako ekimenak askotarikoak dira. Pasa den urtarrilaren 17an egin zuten Lehen Hezkuntzako 4. mailakoek egitasmoak proposatutako lehen jarduera. Hain zuzen ere, patio orduko

zaborraren inguruko hausnarketa egin zuten eta proposamen jasagarriak zabaldu: "Eskolara egunero ekartzen dituzten hamaiketakoak direla-eta, horiek sortzen dituzten zabor motak ikusi eta aztertu zuten. Proposamenak ere irten ziren hortik; esaterako, tuperrak eta erabiltzea", adierazi du Martinezek. Zuhaitzak ere landatu dituzte dagoeneko. Urtarrilaren 24an, Lehen Hezkuntzako lehen mailakoek txanda izan bazen, otsailaren 28an, berriz, Haur Hezkuntzako bost urtekoak neska mutikoak joan ziren; 100 zuhaitzetik gora landatu zituzten ikasleek, irakasle, guraso talde zein Dulantziko alkatearen laguntzarekin.

Bestetik, oihalezko poltsak egiteko asmoa dute eta urtarrilaren 31n horretarako logoa aukeratzeko lehiaketa

antolatu zuten urtarrilaren 31n. Eko-Gunea txokoa daude ikusgai aurkeztutako lan guztiak.

Kontzientziazio kanpainak

Horrez gain, eskolako ingurunekeo patioa, aparkalekua edo skate parkea auzolanean garbitu eta horren inguruan hausnartu dute. Eta otsailaren 14an, bestalde, gelaz gela joan ziren Lehen Hezkuntzako 3. Mailakoak eskolara oinez edo bizikletaz joan daitezela animatzeko. Ez da hori aurreikusita duten kontzientziazio kanpaina bakarra. Asteon bertan, adibidez, energia aurrezteko kanpaina martxan jarriko dute; hau da, argia eta gailu elektronikoak itzaltzearen garrantziaz zabaltzea.

Eskolako komunitateaz gain, Dulantziko herritarrak ere inplikatu nahi izan dituzte



Jolastorduko hamaiketakoek sortutako zaborrari buruz ere hausnartu dute. M. BITERI.



Eskola ondoko ingurune hurbila auzolanean garbitzeko egindako irteera. M. BITERI.

proiektu honetan, eta martxoaren 27an, etxez etxe joango dira ikasleak birziklapenari buruzko inkestak egiten. Apirilaren 3an, herriko komertzioetara hurbilduko dira eta erosketak egiterako orduan, ohiturak aldatzearen beharraz ohartaraziko diete erosleei; hain zuzen ere, poltsa berrerabilgarriak erabiltzearen garrantzia gogoraraziko diete.

Erosketen gaiari jarraituz, maiatzaren 8an, herriko agureen egoitzara bisitan joango dira eta antzinako erosketen ohituren gainean galdetuko diete bertako egoiliarrei. Garbigunera ere joango dira, eta han ikasitakoarekin sentsibilizazio kanpaina bat egiteko asmoa dute.

Martinez eskertuta dago Dulantziko Udalak zein bestelako erakunde eta eragileek proiektuari egin dioten harrerarekin eta emandako babesarekin: "Laguntza jasotzen ari gara. Oso harrera ona izan du eta oso eskertuta gaude: Udalak berak antolatutako zuhaitz landatzeetara gonbidatu gaitu; oihalezko poltsa batzuk ordaindu dizkigute, ikasleek sortutako logo bat eramango dutenak, eta bestelakoak. Guraso elkartearen laguntza ere badugu, ekimen guztiak beraien sareetan zabaltzen dituztelako". ■■■

	BAKARRIZKETAK	EKOIZPENAK	
	ANTZEZLANAK	MANAGEMENT	
	FAMILIARRAK	 www.ttipia.eus	



Otsailaren 28an ehun zuhaitzetik gora landatu zituzten bost urteko haurrek; lana amaitzean, talde argazkia atera zuten. M. BITERI

Martxoaren 20an 'Ttap' berritua!



'Gorabeherak'
websailarekin!

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari
digitala, deskargatu
astero zure mugikor
edo tabletan

 **DESKARGATU**
Play Store-n

 **DESKARGATU**
APP Store-n

"Oso kirol taktikoa da sokatira, sosegua eta teknika behar dira"

JONE ELORZA ETA RUTH LINAZA BADAIO TZ SOKATIRA TALDEA

Munduko txapeldun izan da Badaiotz; lan eta sakrifizio garrantzitsuaren emaitza dira goi mailako kirolariek lortu dituzten urreak. Halere, kirola zabaltzeko ahalegina falta dela uste dute Jone Elorzak eta Ruth Linazak.

ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

Zortzi aldiz lortu dute munduko txapela Arabako Badaiotz sokatira taldeko emakumezkoek; azkenekoan, otsailean, Irlandan ospatu den goma gaineko Munduko Sokatira Txapelketan. Urrezko bi domina lortu ditu bertan taldeak, 540 eta 500 kiloko mailetan. Urreek, halere, ez dute atseden hartzeko aukerarik eman, eta sokatirako denboraldia bukatu orduko hasi dira plazaz plazako herri kirolen ikuskizunak prestatzen, horiei esker finantzatzeko baita taldea. Jone Elorzak eta Ruth Linazak aitortu dute munduko taldeen kontra egiteaz gainera, estereotipoen kontra ere tiratzen dutela; eta baliabide urriek txinpartak ateratzen dizkiete: "Emakume gutxi gabiltza, baina lana ondo egiten saiatzen gara eta kirol maila altua ematen dugu".

Zer itxaropenekin joan zineten Irlandara?

Jone Elorza: Nik ez nuen espero bi urreak eramatea. Euskadiko txapelketan irabazi arren, ez ginen ondo sentitzen, zeozer ez zihoan ondo taldean, eta munduko txapelketan domina lortzeko moduan ikusten ginen baina ez urrea irabazteko.

Ruth Linaza: Oso denboraldi arraroa izan da, ez ginen egokitzen, urduri ere bageunden, entrenamendu batzuk oso onak egiten genituen eta beste batzuk oso txarrak... Beteranoak gara gehienak, baina zalantza asko genituen eta urduritasunak ez zigun gauzak dakizkigun bezala egiten uzten.

Euskal Herriko txapelketarekin alderatuta, zer maila egon da Irlandan?

R. L.: Euskal Herrikoan lehiatu garen sei taldeak Irlandan egon gara eta bagenekien hemen zer maila zegoen. Han, zalantza beste taldeak ziren, holandarrek, taiwandarrak... Huts handia izan da koronabirusaren ondorioz txinatarrek ez parte hartzea, azken finean potentzia handia direlako, Taiwanekin batera. Hala ere, bagenekien maila handia zegoela, hasteko eta behin hemengo taldeekin lehia handia izan dugulako, Txantrearekin eta Beti Gazterekin batez ere.

J. E.: Joan baino lehen gure artean hitz egin genuen, bagenekien ez geundela ondo, eta entrenatzailearekin hitz egin ostean erabaki genuen aldaketa batzuk egitea taldekideen posizioetan; eta berehala hasi ginen gusturago

tiratzen. Irlandan, Euskal Herriko txapelketan baino hobeto egin dugu, alde handiarekin.

R. L.: Gainera, pisu handian itxaropen gutxi genituen, pisu askoz baxuagoarekin joaten ginelako, baina taldekide berri bat sartu zen, eta lasaiago tiratu genuen. Zorionez, urrea lortu genuen espero ez genuen maila horretan, eta lehenengo eguneko konfiantza horrek asko lagundu zigun bigarren egunerako.

Taiwango taldeari irabazteak zer suposatu du?

R. L.: Ezin da parekatu, baina futbolarekin alderatuta bigarren B mailako edo hirugarren B mailako talde batek Bartzelonari irabaztea bezala da. Egia da jardunaldi batean jokatzeko dela, eta jardunaldi horretan gauzak ondo eginez gero irabazi dezakezula, baina oso-oso ondo egin behar duzu. Gure baliabide pertsonalak, teknikoak eta materialak murriztagoak dira, eta haiek dena dute beren alde.

Zer dute?

R. L.: Horretarako bizi dira. Ikasleak dira eta entrenatzen eta ikasten ematen dute bizitzaren ehuneko ehuna. Maila teknikoan, makinak

dituzte tiradak simulatzeko; badituzte, adibidez, zapatila bereziak, *Asics* zapatila-pare batek 120 eurotik gora balio du eta erabilera bakarra dute. Guk, aldiz, zapatila simple batzuk erabiltzen ditugu, zolan kautxua dutenak; emaitza onak ematen dituzte berriak direnean, baina ezin dira alderatu haien zapatilekin. Entrenatzaile bereziak, prestakuntza fisikoak ere badituzte... Beste mundu bat da haiena.

Zergatik du horrenbesteko ospea sokatirak Txinan?

R. L.: Uste dut finean kirol sinplea delako, eta gainera, gobernuak sekulako babesa ematen die, eskola mailan sekulako indarra egiten dute... Denera, 600.000 fitxa omen daude bertan, eta Euskal Herrian mila fitxara ere ez gara iristen.

Itzela, beraz, Taiwani irabaztea?

R. L.: Bertan, egun horretan, holandarrek eta alemanek zoriondu gintuzten; hegoafrikarrek ere idatzi digute munduko txapelketako tiradarik onena izan zela esanez.

Nola gogoratzen duzue tirada hori?

R. L.: Gu eustera joan ginen txapelketara, hori zen gure helburua, eustea, eta momentu batean igarri genuen bazetorrela, eta pixkanaka altuera hartzen joan ginen eta atzera etortzen hasi ziren. Nik uste dut inork ez diola horrela irabazi Taiwani.

Mendebaldeko talde bakarrazarete Taiwango taldeari gailendu zaiona azken hamar urteetan. Zein da trukoa?

R. L.: Haiek indar izugarria dute eta erasora joaten dira; guk, berriz, defentsa eta



Ruth Linaza eta Jone Elorza, Badaiotz sokatira taldeko kideak. E. UGARTE

erresistentzia. Euskal Herriko talde gehienak horrelakoak gara. **Zer entrenamendu mota egiten duzue?**

R. L.: Abetxukuko frontoi zaharra egokituta dugu guretzat eta hor entrenatzen dugu astean hiru aldiz. Alde teknikoa lantzen dugu bertan; tiradak simulatze aldera "polea" egiten dugu, pisua gora eta behera mugitu polea sistema batekin. Beste talde baten kontra aritzea bezala da baina ez da gauza bera, poleak beti egiten duelako presio berdina; gure artean "kontrak" ere egiten ditugu. Daukagun baliabide eskas horiekin benetako sokatira eta benetako tiradak irudikatzen ditugu.

Teknika eta forma fisikoa behar dira, baina taldean ere elkar-ulertze handia, ezta?

R. L.: Sarritan esaten dugu begirada batekin badakigula zer nahi dugun, ez dugu ikusten

atzekoa baina sentsazioak izaten ditugu. Nik Joneren atzetik tiratzen dut, eta pixka bat jaitsi edo igotzen denean badakit zer egin behar dudan.

Zenbat sakrifikatu behar da sokatirako goi mailako kategorian egoteko?

J. E.: Dena. Ni Oñatin bizi naiz eta Ruth Lemoan, eta astean hiru aldiz Gasteizen entrenatzen dugu; bi alaba ditut, gurasoak gaixorik, lana... Familiaren laguntzarik gabe ezin da, gurasoak zaindu behar baldin badituzte gizonak edo alabak lagundu behar didate, bestela ezin da.

R. L.: Gorputza eta osasuna..., azken finean, goi mailan ibiltzen den edozein kirolarik gorputza astintzen du; eta, beste alde batetik, familiaren babesik gabe ezin liteke egin. Haiek dira honen errudun eta erantzule nagusiak.

Ahalegin ekonomikoa ere ezinbestekoa da. Nola finantzatzen da Badaiotz?

R. L.: Badaude Arabako Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituzten diru-laguntzak, goi mailako kirolari guztiei eskaintzen dizkietenak. Baldintza gero eta gogorragoak dituzte eta gero eta zailagoa da diru-laguntza horiek jasotzea, baina guk jasotzen ditugu. Horrekin gastu kopuru batera heltzen gara, baina ez da nahikoa izaten. Beraz, herri, auzo eta hiriburu desberdinetan antolatzen diren ekitaldietatik eta jailetatik deitzen digute erakustaldiak egiteko eta emakumeak herri kirolean nola ibiltzen garen azaltzeko. Horietatik ere etortzen da dirua.

Desplazamenduak eta bidaiak nola ordaintzen dituzue?

R. L.: Horiek bakoitzak bere poltsikotik ordaindu behar izaten ditu. Eta aurrean pozik gaude bidaiarentzat ez dugulako ezer jarri behar izan; norma-lean bidaiaren zati bat gure



Badaiotz sokatira taldeko kirolariak, goian, urrezko dominak eskuratu ondoren. BADAIOZ



Sakrifizioa eta lan gogorra dira emaitzen iturria. E. UGARTE

poltsikotik jarri behar izaten dugu.

Goi mailako kirolariak zarete, eta bigarren mailakoak zaretela dirudi; emakumezkoak izateagatik hori?

R. L.: Sokatiran orokorrean denak gabiltza berdin. Horretan ez dago ezberdintasun handirik gizonen eta emakumeen artean. Ezberdintasunak agian txapelketetan ikusten dira, beti gure lekua aldarrikatu behar izaten dugulako, gure goma guretzat izatea eskatu behar izaten dugulako edo batzarretara joan eta gure espazioa eskatu behar izaten dugulako, hemen gaudela erakutsi behar hori. Emakume gutxi gabiltza baina lana ondo egiten saiatzen ari gara eta kirol maila altu bat ematen dugu; ez dugu zergatik bigarren plano batean egon behar.

Ezaguna da sokatira baina aldi berean oso ezezaguna.

R. L.: Sokatira eta herri kirolak orokorrean. Niri, adibidez, sokatiran egin nahi nuen galdetzen zidatenean ea hori kirol moduan egiten ote zen galdetzen nuen. Sokatira zenik ere ez nekien, eta baietz esan nuen; entrenatzen hasi eta hilabetera munduko txapelketara joan nintzen eta han ikusi nituen Amerikako Estatu

"FAMILIAREN BABESIK GABE EZIN LITEKE EGIN. HAI EK DIRA HONEN ERRUDUN ETA ERANTZULE NAGUSIAK"

Batuetako jendea, Hegoafrika-koak, Australiakoak, Txina-koak... Orduan nire buruari galdetu nion: "Baina zer mundutan bizi naiz ni?".

J. E.: Sarritan galdetzen digute entrenatu behar izaten dugun. **Kirolarekin baino folkloreakin lotzen dira maiz sokatira eta herri kirolak.**

R. L.: Batzuetan emakumeak plazan ikusi ditudanean nik neuk behintzat sentitu izan dut gehiago entrenatuta agertu behar garela, eta folklore puntua guk ematen diogula emakume bezala. Labur esanda, zerbait erakutsi nahi baduzu, maila txukun bateko zerbait eskaini behar duzu, eta zorionez, gero eta maila altuagoa dago. Saiatzen gara ere estereotipoak apurtzen.

Estereotipo asko daude herri kirolean?

R. L.: Handiak eta indartsuak izan behar garela dirudi. Ni neu handia naiz, baina orokorrean

gure gizarteko neskak ez dira oso handiak, altuak eta indartsuak. Finean kirolariak gara, forma fisiko onean egon behar gara, hori da inportanteena, eta horretarako entrenatu behar dugu. Gure taldean eredugarriak izan gara, adin ezberdinetako jendea egon gara beti, gazteak eta nagusiak, handiak, txikiak, beteranoak eta berriak, eta denon artean antolatzen dugu. Denok dugu gure lekua, bakoitzak bere zatia ematen du, eta oreka denen artean egiten dugu. Osagarriak gara.

Zer behar du sokatira talde on batek?

J. E.: Burua oso inportantea da. Oso kirol teknikoa da. Fisikoki oso ondo dagoen jendea etortzen zaigu, eta ez du iraun, sosegua eta teknika ere behar direlako. Egoten jakin behar da, sokari entzun behar zaio.

R. L.: Oso kirol taktikoa da. Polita da tiratzen duzunean igartzea tentsio falta hori, eta pausua ematea... Sentsazioak topatu behar dituzu.

Nola animatuko zenukete neskato edo mutiko bat herri kirolelara?

R. L.: Dei bat egingo nuke herri kirolak eskola-kirolean sartzeko, bestela ez dutelako aukerarik gazteek. Eskolarteko txapelketak ere antolatu behar dira. Egun, gazte bat entrenatzen hasten dena eta lehiatzen hasten dena seniorrekin lehiatzen da; hamabost urterekin hasten dira elitekoekin tiratzen, munduko talde onenak dituzte aurrean.

J. E.: Ez da samurra, ez da saskibaloia oso zabalduta dagoela eta edozein tokitan entrenatu daitekeela; herri kirolean inguruan ez baduzu aukerarik, ez da erraza. Bizkaian eta Nafarroan eskola-kirolean sartuta dago, Araban ez. ■

Orain, apokalipsia

NUTRIZIOA



NAGORE ENCISO

NUTRIZIONISTA

Egun arraro hauetan, komuneko papera urrea baino preziatuago den hauetan (bidetak ere existitzen dira), janaria pilatzea omen da garrantzitsua. Pilatu, besterik ez dugulako egingo.

Gastroenterista jota bukatu nahi ez baduzue, eta, bide batez, komuneko papera aurreztu, badago, nonbait, janaria pilatzeko modu on bat; apokalipsia pasa ondoren ere manten genezakeena, baldin eta elektrizitatea izaten jarraitzen badugu: hozkailua.

Baina nola gorde geure janak hozkailuan? Ba al dago modu zehatzik hauek ondo mantendu ahal izateko? Bada, bai, badago.

Jakin behar dugu hozkailuan zonalde hotzagoak eta epelagoak daudela. Atea tokirik beroena da, eta honen ondoren, hozkailuaren goiko apala. Hotzena, berriz, erdiko apalak dira. Beraz, janari galkorrek hozkailuaren erdialdean kokatuko ditugu, eta hainbeste bero behar ez dutenak, atean. Jaki guztiak babesturik gorde behar ditugu, euren ontzietan edo tuperretan, beirazkoak badira hobe. Janari gordinak eta kozinatutakoak bereiztuko ditugu, inoiz ez kontaktuan.

Arrautzak eta ontziak dituzten jakiak (jogurta esaterako) ez dute hainbeste hotzik behar, beraz, goiko apalean kokatuko ditugu. Ondoren, beherago, esnekiak eta hestebeteak, eta etiketetan "una vez abierto, consérvese en frío"



PIXABAY

zehazten duten jakiak. Erdiko apaletan, hotz handien dutenetan, alegia, kozinatutako jakiak gordeko ditugu, beti ere gordinenetatik bereiztuak. Jarraian, haragiak eta arrainak, eta janaria desizoztu behar badugu, 24 ordu lehenago bertan gordeko dugu. Barazkiak eta frutak, zikinenak direnez, beheko

apaletan gordeko ditugu, beste jakiak ez zikintzeko. Azken hauek poltsarik gabe, hezetasuna ez metatzeko. Azkenik, atean, hainbeste bero behar ez dituztenak: edariak, gurina, marmelada, saltsak...

Hauek dira janariak hozkailuan ondo gordetzeko gomendio orokorrak, baina badakigu, denbora faltagatik dela, edota gogo faltagatik dela, ez dela beti erraza izaten. Bada, gogoratu, janaria botatzeak ez daukala barkamenik, baina gertatzen baldin bada, usain paregabea izango duzuela hozkailuan. Hauek ekiditeko badaude erremedio merke eta naturalak: limoi bat erditik moztu, iltze batzuk jarri (espeziaz ari naiz) eta trabarik egingo ez duten tokietan kokatu. Limoiak usain txarrak xurgatu eta iltzeak usain ona emago du. ■■■

Jimmyjazz
gasteiz

MARTXOA

ot. 19 GOIZARGI GOSPEL C. #ATZERATUTA

os. 20 BOOT BOYS + BAKE FALTSUA
DATA BERRIA: MAIATZAK 29 OSTIRALA

ln. 21 ZETAK + EZETAERRE #ATZERATUTA

TRAVELLIN' BROTHERS + MISSISSIPPI QUEEN & T.W.D.
DATA BERRIA: URRIAK 2 OSTIRALA

DR. QUEEN DATA BERRIA: URRIAK 11 IGANDEA

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

Musika-dokumentalak

MUSIKA



IGOR MUÑOZ

MUSIKAZALEA

Urrutiko kontuak zirela zirudien Txinako irudiak ikusten genituenean. Baina, behin Italiara helduta sinesgarritasun handiagoa eman genion birus berriaren gaiari. Eta horrela, gondolari baten *O sole mio* batek irauten duena baino lasterrago heldu zaigu gainera. Osasun arloan sortutako arazoak dira larrienak, baina badira ere kaltetuak suertatu diren beste hainbat arlo; kulturarena kasu. Izan ere, gurean zein beste herrialdeetan programaturik zeuden ekitaldiak geroratu behar izango dira.

Konfinatzeko aginduari aurre egite aldera, artistek irudimenari eragin diote, eta badira indarra hartu duten hainbat ekimen berritzaile, gehienak ere sare sozialeen *streaming* bidezko musika zabaltzearekin zerikusia dutenak. Etxeko pantailen aurrean nahiko genukeena baino denbora gehiago pasatuko dugula ikusita, gaur musikaz hitz egiten duten bost dokumentalen gomendioarekin natorkizue:

1990eko erdialdean, Nick Gold ekoizlea Ry Cooder musikari kaliforniarrarekin harremanetan jarri zen Kuban disko berezia grabatzeko. Son kubatarra Ali Farka Toure edo Toumani Diabate bezalako musikari entzutetsuen doinuekin uztartuko lukeen diskoa. Malitarren pasaporteekin



BUENA VISTA SOCIAL CLUB

arazoa egon zen eta ukatu egin zitzaien La Habanara bidaiatzea. Ondorioz, 1997an *Buena Vista Social Club* diskoa Kubako musikari beterranoekin soilik grabatu zen, tartean Omara Portuondo eta Compay Segundorekin. 1999an izan zen Wim Wendersek izen bereko dokumentala zuzendu zuenean; diskoaren grabazioa, musikari zaharren egunerokotasuna eta munduan zehar egindako bira erakusten ziren.

Patti Smithen ekainaren 20an bisitatuko gaituela kontuan hartuta, bere bizitza gorabeheratsuaz gehiago ezagutu nahi badugu, *Patti Smith: dream of Life* (2008) dokumentala ikusi beharko dugu nahitaez. Steven Sebring zuzendaria izan zen artistari lagundu ziona bere bizitza eta musika ibilbide gorabeheratsua dokumentatzen, 12 urtetan zehar. Emaizta rockari buruzko

eritmo lasaiko ikus-etzunezkoa da, gehienbat zuri-beltzean filmatuta.

Searching for Sugar Man (2012) Malik Bendjelloulek zuzendutako dokumentala da. Sixto Rodriguez abeslari arrakastatsu bezain misterioitsua izanik, Hegoafrikako bi jarraitzaile sutsu bere benetako nortasuna aurkitzen saiatuko dira. Argumentu horri helduta, 2012an hogeit bat zinema sari lortu zituen; horien artean, dokumental film luze onenaren Oscar saria...

Euskaldunen belaunaldi oso batean eragin handiena izan duen punk-rock taldeetako bat The Clash izan zen. Euren jarrera eta progresio musikala, *Joe Strummer: The Future is Unwritten* (2007) taldeko liderraren inguruan eginiko dokumentalean ezagutu dezakezue. Julien Templek zuzendu zuen, besteak beste, Mick Jagger, Flea edo Jim Jarmusch eginiko elkarrizketak dituen artelana.

Euskal Herrian baditugu hainbat dokumental musikari lotuta; nik *Nömadak Tx* (2006) azpimarratuko nuke. Txalaparta irauli duen Oreka Tx taldeak filmatutako lana da, antzinako euskal musika tresna India, Mongolia edo Laponia bezalako herrialde urrunetara eraman duena, bertako musika tresnekin fusionatuta soinu berriak sortzeko asmoz. ■

Ezberdintasunak

DULANTZI IKASTETXEA - LH 4 A

Bi marrazki egin ditugu, antzekoak dira, baina 5 ezberdintasun ezkutatu ditugu. Ea aurkitzen dituzuen! Animo!




Mandala

DULANTZI IKASTETXEA - LH 4 A

Mandala hau zuek margotzeko egin dugu.

Hartu gustuko koloreak eta hasi margotzen!

Ea polit-polita geratzen zaizuen!



A2



**Antxeta
Irratia,
hegoak zabalik
Euskal Herri
osora**

Donostia 105.8 Mhz | Bilbo 91.4 Mhz
Gasteiz 90.4 Mhz | Iruña 106.70 Mhz

KORONABIRUSA

ETXEAN ZUREKIN PROGRAMA



**MENPEKOTASUNA
IZAN ETA ETXETIK
ATERA EZIN
DUTENENTZAT
LAGUNTZA**

Menpekotasuna baduzu.
Menpekotasuna duen
senitartekoren batek laguntza
berezia behar badu janaria edo
sendagaiak erosteko edo janari
zerbitzua behar badu:

ETXEAN ZUREKIN programak
lagunduko dizu **etxetik ezin
baduzu atera.**

DEITU



945 15 10 15

araba.eus



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava